

Ludoteka irekiko dute

12 urte arteko
umeentzat
izanen da,
maiatza arte ▶ 7



Harpidedunei banatua ▶ Ostirala ▶ 2006-03-17 ▶ IV. urtea ▶ 839. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

«Afizionatu mailako onenak» gurpil gainean

LIZARTZA ▶ Otsabio Kirol Elkarteak antolatutako XVIII. Insalus Saria korrituko dute bihar txirrindulariek
IBILBIDEA ▶ 103 kilometro egin beharko dituzte parte-hartzaileek; Lizartzan hasi eta bukatuko da ▶ 6

BERASTEGI ▶

Gaur hasiko dira Urepelek antolatutako Gazte Festak

Hasteko, afaria eta DJ Bull-en saioa ▶ 6

N. LATABURU



‘Nafarroako artizarra’ eleberri berritua kaleratu du Joxe Mari Iturraldek

TOLOSA ▶ 1984. urtean idatzi zuen eleberria berreskuratu du; haren iritziz, «tradiziozko nobela historikoari ostikada bat» da lana ▶ 2

TOLOSA ▶

Aurreikuspen guztiak bete ditu Merkatu Txikiak

3.000 eurotik gora bildu ditu Amaroako Auzo Elkarteak Nikaraguarako ▶ 3

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Gipuzkoako Kantu Txapelketan ariko dira eskualdekoak

More taldeak eta Izaro Otaegi eta Aiora Irazusta bikoteak ekingo diote gaur ▶ 4

www.sagarrondotik.com | leiza | berria | hitza

SAGARRONDOTIK

06

THE LOQUILLO
FRANZESKAS
CHAMBAO
PAL KELI
SORKUN


MORODO
CELTAS FORTOS
BERRI TXARRAK
BETAGARRI
HAMLET

HERNANI

KULTURA ▶

Irakurlearekin jolasean

Joxe Mari Iturralde idazleak 'Nafarroako artizarrak' eleberrri berritua kaleratu du, 1984ean idatzi zuena; garaiko nobela historikoak aztertuta, «berrikuntzak» barneratu nahi izan zituen



Joxe Mari Iturralde idazlea, atzo Donostian eginitako aurkezpenean. NOELIA LATABURU

JOXE MARI ITURRALDE ▶ IDAZLEA

«'Nafarroako artizarrak' tradiziozko nobela historikoari ostikada bat da»

Filosofia eta letretan lizentziatua den tolosarra narratiba liburu askoren egilea da, hala nola, *Dudular* eta *Pic-nic zuen arbasoekin*. 22 urte eta gero, *Nafarroako artizarrak* berritua kaleratu berri du orain; atzoko aurkezpenean «nobela historikoa dirudien baina ez den» liburu honen gainean jardun zuen, bai eta urte hauetan guztietan emandako eraldaketaren inguruan ere.

Hogei urteren ostean, nolatan heldu diozu berriro 'Nafarroako Artizarrak' liburuari?

Ez da bereziki sentitu dudan beharra. Kanpotik etorri zait. Besteak beste, nire liburuak irakurtzen zuten unibertsitateko ikasleek nahastu egiten ziren, aldrebestu. Orduan, liburuak berriro kaleratzeko ideia izan genuen. Ez dakit zergatik, baina liburu honek badu zerbait itzaltzen ez dena.

Zer transmititu nahi zenuen liburuekin?

Ondo pentsatutako liburu bat da, nobela historikoen harira sortu dudana. Garai historiko bat kontatzen dut, baina aldi berean, abiatu egiten dut ez sinesteko dena, keinu bat luzatuz. Beraz, tradiziozko nobela historikoari ostikada bat dela esan daiteke. Duela 22 urte idatzi nuen, garaiko nobela historikoa aintzat hartuz.

Nobela historikoa dirudi, baina ez da horrela, beraz.

Hala da; esan bezala, garai horretan zeuden aldean zerbait berria egin nuen. Kritika guztiak izan ditut, batzuk gus-tuko izan zuten; beste batzuk, aldiz, ez. Idatzi nuenean, kultur aniztasun munduaren galera berreskuratu nahi izan nuen.

Nori zuzendu nahi diozu edizio berria?

Egia esan, orain idatzi beharko banu, beste era batera egingo nuke. Edizio honekin agian publiko gazteagoa hurbilduko da

libururaino, aurretik ezagutzen ez dutenek, hain zuzen ere. Irakurtzeko era ere aldatu egiten da jendeengan.

22 urte igaro dira. Nola ikusten duzu garai hortako zure estiloa?

Nafarroako artizarrak irla bat bezala da nire idazle bizitzan. Behin egin nuen eta ez dut horrelakorik errepikatu. Horrexegatik da hain berezia, ondoren ez baitut ildo horretatik jo. Guztiok aldatzen gara, gauza onak eta txarrak irabaziko nituen tarte honetan, ziurrenik.

Buruan ba al duzu etorkizun hurbilerako proiekturik?

Duela bost urte argitaratu nuen nire azken eleberria. Eta ordutik lanean aritu naiz beste berri batean. Azken ukituak ematen ari naiz eta espero dut aurrean kaleratu ahal izatea. Horrela, behintzat, liburuak ezberdina izango dela ziurtatzen dut, aurrekoarekin alderatuz. ◀

NOELIA LATABURU

Estreinakoz 1984. urtean ikusi zuen argia Joxe Mari Iturralde idazlearen (Tolosa, 1951) *Nafarroako artizarrak* eleberrriak. Orain, 22 urte igaro direnean, «euskal literaturaren gaurkotzean garrantzi handia» izan duen liburu berritua eskaini nahi izan du tolosarrak, Elkar argitaletxearen eskutik. Atzo burutu zuten aurkezpen ekitaldia Donostian, Joxe Mari Iturralde bera eta Xabier Mendiguren editorea bertan izan zirelarik. Edizio honetan, «azal berria, testua orraztea eta idazlearen hitzaurrea» dira berrikuntzak.

Mendiguren editoreak hartu zuen hitza lehenik. Besteak beste, liburu bat berriz kalera tzea interesgarria zela azaldu zuen; izan ere, «euskal literatura zertan aldatu den azaltzen du». Ondoren, protagonistaren txanda heldu zen. Liburuak idazterakoan aintzat hartutako ardatzak azaldu zituen idazleak. Garai horretan nobela historiko guztiak modu berean egiten zirela eta, «berrikuntza» bilatu zuen eleberrri honekin. Hala, «keinu eta erreferentzien bidez», kristau, musulman eta juduak, hizkuntzak, abenturak, maitasun kontuak... uztartu ditu.

Umberto Eco ekarri zuen gogora, halaber, Tolosakoak. Iragan lantzeko hiru modu berezitu omen zituen hark: batetik, iragana eszenografiarako aitzakia bezala erabiltzea; bestetik, pertsonaia errealek erabiltzea, baina fikziozko pertsonaiekin nahasiz; eta, azkenik, zeinean ez duen zertan pertsonaia errealek azaldu, protagonistak egiten dutena une historiko horretan soilik gerta daitekeena. Iturralde «hiru motak nahastu» zituen. Eskema hau berriro nahi izan nuen, izan ere, «nobela historikoa kontraesana da, edo eleberria da, edo historia da».

Pertsonaia difuminatuz

Nafarroako artizarrak nobela Erdi Aroan abiatzen da, Lizarra ondoko Iguzkitza nekazari herriatik orduko hiri aberatsenetakoa zen Toledoko auzo judutarra. Baina eleberria ez da historikoa, idazlearen esanetan; izan ere, «historiarekin jolas egiten dut, keinuen bitar-



XABIER MENDIGUREN
EDITOREA

«Denboraren poderioz irauten duten liburuek erreferentzia batzuk galdu eta besteak irabazi egiten dituzte»



JOXE MARI ITURRALDE
IDAZLEA

«Liburuak idatzi nuenean, kultur anitzen galdutako mundu bat berreskuratu nahi izan nuen»

tez, pertsonaia espazioan eta denboran difuminatzen ditut, batetik bestera eramanez». Edizio berri honetan aldaketa gutxi barneratu ditu Iturralde, «ortografia, Euskaltzaindiaren arauak eta estilo aldetik hainbat xehetasun». Pertsonaia nagusiak, beraz, bere horretan mantendu ditu. Azala ere «oso egokia» da, garaiko eta egungo objektuekin jolasten duelako, «eleberririk bezalaxe». Hitzaurrean, berriz, Iturralde hamar ohar idatzi dizkio irakurleari, non «nobela historikoa ez den» liburuari buruzko hainbat argibide azalzen dituen.

Seigarren den edizio berri honen harira, Xabier Mendiguren baiezatu zuenez, «denboraren poderioz irauten duten liburuek erreferentzia batzuk irabazten dituzte eta beste batzuk, berriz, galdu eta urteetan irakurlearen ulermena ere aldatu egiten da». Iturralde, hatik, «gaur egun beste era batera idatziko zuela» aitortu zuen.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Haizeak azoka astintzen

Martxoak 4, larunbata, azokazoka Triangulo plazan. Hego haize zakarra eta toldo ziztrinak kontrapisuz lotuta ez mugitzeko. Tolosako Udaleko inor ez toldoak zaintzen; dirudienez, azokaren egoera kontrolpean daukate. Bat-batean, haize bolarada bortitz batzuk kaosa sor-

turen dute. Baserritarrek toldoetxe eusten diete indarrez haizeak eraman ez ditzen eta zauriturik ez egoteko.

Hala eta guztiz ere, toldoak tolestu egiten dira haizearen poderioz, estuktura malguak baitituzte. Baserritar edo herritarren inpotentzia begibistakoa da. Egoera kontrolezinean, Triangulo plazako arku azpiko Alde Zaharrerako sarbideetik datorren haize korrantea

eremuko hiru toldo heganarazten ditu.

Baserritar eta herritar batzuen artean toldo apurtuak jasotzen dituzte, ahal duten lekuan uzten eta kontrapisuak aprobetxatzen dira postuak sostengatzeko. Bitartean, haizeak segitzen du sustoren bat edo beste ematen eta baserritarrek toldoak eta zutabeak eutsi behar izango dute bi eskuez goiz osoan zehar. Udale-

txekoak ez dira agertzen. Lau postu toldorik gabe egongo dira, eta eskerrak euririk ez zuela egiten!

Egoera hau ez da berria, ordea. Beste bi larunbatetan errepikatu dira irudi hauek Triangulo plazako azokan. Noiz arte segituko dute baserritarrek egoera honetan? Kale gorrian, eguraldiko elementuen menpean. Zerkausiko azokaren konpontze lanetan

dirutza gastatzen den bitartean?

Gaur egun, kontsumo ohiturak aldatuz doazen heinean, azokaren etorkizuna kolokan ikusten da, salmentak jaisten doaz pixkanaka, eta ondorioz, baserritarrek gutxitzen doaz, eta produktuen kalitatea ere gainbeheran doa. Zer izango da Euskal Herriaz baserritarrek desagertzen badira?

XABIER ARANGUREN ▶ BEIZAMA

GIZARTEA ▶

Aurrikuspenak bete ditu Merkatu Txikiak

Urtero bezala, fideltasuna eta konstantzia erakutsi dute tolosarrek, 3.000eurotik gorako irabaziak atera direlarik



Nikaraguako Xochilt-Malpaisilloko emakume elkarteak . HITZA

deltasun osoz, Merkatu Txikiak joan diren guztiei. Eta gehitu dute ere Nikaraguako Xochilt-Malpaisilloko emakume elkartearen eskerra. Herrialde honetako egoera txarra dela eta, oso arazo larriak dituzte minbizia pairatzen dutenek. Eta, datuen arabera, eremu honetako emakumeen %5ek minbizia dute.

Proiektu honen helburua ahalik eta diru gehien biltzea zen. Emakumeen Zentru horrek gaixotasunaren tratamenduan dituen gabeziak asebetetzeko. Izan ere, emakume asko hiltzen dira kimio eta erradio tratamenduak ez dituztelako nahiko, eta urte askoan egon beharra dutelako ebakuntzaren zain. Mertxe Brosa Nikaraguaren bizi da, eta hark lagundu die Amaroako Auzo Elkarteak elkartasun proiektu hau gauzatzeko.

Azokara joaterik izan ez duenak Kutzako kontu korrante honetan sar dezake bere diru laguntza: 2101 0081 15 0124410788.

ESTI EZEIZA

Arropa, jostailuak, liburuak... erosteko aukera izan zen joan den astean Kultur Etxean. Hilaren 7tik 12ra bitarte irekita egon ziren Amaroako Auzo Elkarteak antolatutako Merkatu Txikiak ateak. Nikaraguaren aldeko Elkartasun Azoka honen umetoki lepoko eta bula-

rretako minbizia daukaten emakumeei laguntzea zuen helburu. Eguraldiak lagundu ez badu ere, antolatzaileek adierazi dutenez, aurrikuspenak bete dira, eta hasiera batean bildu nahi zituzten 3.000 euroak eskuratu dira. Hori dela eta, bereziki, eskerrak eman nahi dizkiete Amaroako Auzo Elkarteak, urtero bezala, fi-

INGURUMENA ▶

'Haur bat, zuhaitz bat' jaia, Amarozen

Azken bi urteetan jaiotako 27 haurren gurasoek zuhaitz bana landatuko dute



Iazko Zuhaitz Eguna, Tolosan. JAIONE ASTIBIA

E. EZEIZA

Laugarren aldiz, *Haur bat - zuhaitz bat* izeneko festa antolatu du Amaroako Auzo Elkarteak, Tolosako Udalaren eta Gureak Enpresaren laguntzaz. Aurtengoa, igande honetan egongo dute, eta gurasoak izango dira protagonista. Zehazki, azken bi urteetan Amarozen jaiotako 27 haurren gurasoak.

Jaia 10:30ean hasiko da, eta familia bakoitzak zuhaitz bat landatuko du. Landare bakoitzaren haurraren izen eta jaiotegunarekin identifikatuta

egongo da. Ekitaldi honekin mezu hau zabaldu nahi dute: «inguratzeko gaituen naturarekiko errespetua eta hura zaintzeko ardura» zabaldu behar direla.

Lau aldiz egin dute dagoeneko festa hau, eta orain arte 120 haurren gurasoek landatu dituzte zuhaitzak. «Oro har familiak ez dira ahaztu haurrekin batera jaiotako ziren zuhaixketak, eta bisitatzeratzen jaten dira noizik eta behin». Hala, gurasoek landatutako zuhaitz horiek Tolosan jaiotako gogoraziko diete beraien seme-alabei.

hitza

txokoa

lagunen

▶ HITZAKo harpidedunen artean

Tolosako Udalak **Martxoaren 8**rako ateratako **KAMIXETAK** zozketatuko ditugu.

Lortu zurea!

Zozketan parte hartzeko deitu 943 65 56 95 telefonora (11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara).

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

GUTUN@K ▶

Zer gertatu da Usabal kiroldegan?

Benetako kezka eta ezinegona sortu digu Usabal kiroldegi berri gertatu denak. Herritarrok zer gertatu den galdetzen dugu eta egi osoa jakiteko eskubidea dugu. Larria deritzogu arazoa, eta ez gara konformatuko edozein aitzaki eman eta erantzukizuna gainetik kentzearekin.

Sei hilabete besterik ez dira

igaro alkateak kiroldegirik onenaren pareko inauratu zuenetik, eta lehenengo eurite handiak koloreak gorritzeko moduko erantzuna eman dio.

Noren ardura da gertaturikoa? Erantzukizun politikoak daude eta ezin dira ekidin arazo tekniko hutsa argudiatuz.

Bota zuen euritea handia izanik ere, ez dira estrainekoak, handiagoak bota izan ditu eta pentsa genezake berriz ere izango direla antzekoak.

Askorengan benetako alarma sortu duena, kokapenaren ondorio izan ote denaren sus-

moa da, eta errepikatzen den galdera: ez ote da eraiki kiroldegia ur korrentean gainean, toki ureztagarrian eta neurri teknikoan gainetik, ez ote du urak bere jatorriko tokia okupatu? Uste dugu serioitasunez aztertu behar dela gertaturikoa eta ez dela mugatu behar lehenbailehen konpondu eta presakako erantzunak ematera. Eskatzen duguna zera da: antzeko eurite eta egoeretan berriro gerta dadin zer probabilitate dagoen jakitea.

Gertatu dena gertatu eta gero, ez baita bidezkoa astebu-

ru horretan Jokin Bildarratzek igeri txapelketaren hasieran, munduko igerilekurik onenean igeri egingo zutela igerilariei esatea eta une berean kiroletako pistak urez beteta izatea. Harrokeria gutxiago eta gestioaren jarraipen zuzenagoa eta humilagoa egitea espero liteke horren ardura nagusia duenarengandik.

Erantzukizunen zain geratuko gara. Herritarrok egi osoa exijitzen dugulako.

ANTXON IZAGIRRE, HEKTOR ESPIN, BEGOÑA ALDALUR, AITOR IZTUETA ETA IBAN ORTIZ (TOLOSA BIZIRIK) ▶ TOLOSA

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

MUSIKA ▶

Eskualdekoak Gipuzkoako Kantu Txapelketan

More taldeak eta Izaro Otaegi eta Aiora Irazusta bikoteak hartuko dute parte

ERREDAKZIOA

Urretxun ekingo diote bihar aurtengo Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketari, Labeaga aretoan, 18:00etan. Eskualdetik zenbait parte-hartzaile ariko dira. Villabonako More taldea Alexander Padilla, Joseba Azkue, Estibalitz Etxaide eta Edurne Elorza boskoteak osatzen du, eta Xavier Leteren *Sehaska kanta* abestuko dute. Izaro Otaegi billabonatarra eta Aiora Irazusta zizurkildarra bikote gisa ariko dira, *Inshala* (Alaitz eta Mainer) eta *Baratze bat* (P. Paul Berzaitz) abestiek.

ANOETA ▶ GIZARTEA



Trenbide ondotik doan Santio Bideetik ibiliko dira parte-hartzaileak. i. g.

Ehun jubilatuk hartuko dute parte ibilaldian

Zortzi kilometro dituen martxa antolatuta du Alkartasuna Biltokiak

IMANOL GARCIA

Anoetako Alkartasuna Biltokiak jubilatuentzat ibilaldia antolatuta du bihako. Andoain inguruko eta Tolosaldeko jubilatuek elkarteko kideek hartuko dute parte. Anoeta, Andoain (bi elkarte), Alegia, Berastegi, Ibarra, Irura, Tolosa (Haritze eta Amaro), Urnieta, Villabona eta Urnieta herriko jubilatuek elkarrekin ordezkaritza izango da. Bakoitzetik lau laguneko bina taldek hartuko dute parte. Guztira, beraz, ehun lagun baino gehiago elkartuko dira.

10:30ean ekingo diote ibilaldiari, Anoetako plazatik. Villabonara joko dute, trenbide on-

doko bideetik, Santio Bidea egin, beraz. Villabonako Sanzeko zubi parean geldialdi bat egingo dute, ordu laurdenekoa, eta indarrak hartzeko zerbait hartzeko aukera izango dute. Ondoren, Anoetalderra abiatuko dira eta, herrian sartu ondoren, Ikastolaraino joango dira berriro plazan amaitzeko. Handik Alkartasuna Biltokira joango dira hamaiketako hartzaera. Zortzi kilometro inguruko ibilaldia izango da.

Alkartasunako zuzendaritza batzorde guztia eta hiru boluntario antolaketa lanetan ariko dira eta ibilaldian parte hartzen duten kolaboratzaileei eskerrak luzatu dizkiete.

VILLABONA ▶ GAZTERIA

Onddoren ekitaldietan, marrazketa ardatz

Herri Olinpiaden bigarren proba eta haurrei eta gaztetxoei zuzendutako tailerra, bihar

ERREDAKZIOA

Onddo Gazte Asanbladak bi ekitaldi antolatuta ditu bihako. Alde batetik, Herri Olinpiadek bere jarraipena izango dute. 16:00etan hasiko da ekitaldiko proba, marrazketa, eta lehenengo bezala, Gaztetxean egingo da.

Lehenengo proba bertsoaren inguruan egin zuten orain bi aste eta ondoren zehazten den bezala gelditu zen behin behineko sailkapena: Jun da Bertan, 7 puntu; Wuitxu, 6 puntu; Magazken 5 puntu; Motxinoak, 4 puntu; Txintxingo, 3 puntu; Kixbi, 2 puntu eta Gaztetxea, puntu 1.

Bestalde, haurrei eta gaztetxoei zuzenduriko marrazketa eta pintura tailerra antolatuta du Onddok. 11:00etan hasiko

dira, Txistulari plazan. «Marrazketa egunerokotasunaz aberastea eta hori itxuraldatzea ahalbidetzen dieten adierazpen baliabideak sortzen dira haurrengan. Espe-rientzien, emozioen, sentipenen eta errealitatearen zein irudimenezko munduaren lekuko egiten dira haurrak», adierazi dute antolatzaileek.

Aurrekoaz gain erlaxazioa eta kontzentrazioa garatzen laguntzen duela diote, eta haurren nortasunaren eta besteareriko eta inguruarekiko harremanen garapena bultzatzeko baliabidea dela zehaztu dute.

Ekitaldia interesa duten haur eta gaztetxo guztientzat irekita dagoela azpimarratu dute Onddo Gazte Asanbladakoek.

ASTEASU ▶

Kantujira egiteko aukera abesbatza taldearekin

Asteasuko abesbatza taldeak kantujira antolatuta du hilaren 25erako. 12:00etan elkartuko dira Kultur Etxearen ondoan, eta herrian zehar ibiliko dira kantari. Ondoren, bazkaria antolatuta dute, eta hor ere ez dira kantuak faltako. Parte hartu nahi duenak bazkarirako izena emateko 687 27 31 63 telefono zenbakira deitu behar du, eta gaur da horretarako azken eguna.

ADUNA ▶

Ibilgailuen Zerga ordaintzeko epea zabalik dago

Adunako Udalak, bando bidez, jakinarazi du aurtengo Ibilgailuen Zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 15a arte dela. Epe hau amaitu eta ordainketa ez bada egiten, bide exekutiboa (%20ko errekaruarekin) kobratuko da. Ordainketa udal bulegoetan edo Udalak bai Kutxan edo bai Euskadiko Kutxan dituen kontu korrentetean egin daiteke.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411


▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
▶ **Leizta.** Osasun z.: 948 510800
▶ **Orendain.** Medikua: 655595
▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**
▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
▶ San Esteban: 006800
▶ Gernikako arbola: 006900
▶ Amaroako dispen.: 672637
▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)
▶ **DYA:** 672536
▶ **Gurutze Gorria:** 674888
▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.
▶ Renfe: 902 24 02 02
▶ Donostiako autobusa: 361740
▶ Tolosaldea bus: 650621
▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
▶ Taxia: 670420
▶ Taxia (Leizta): 608 873016
Besterik.
▶ Ertzaintza: 538820
▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
▶ Tolargi: 650016
▶ Iurramendi egoitza: 670325
▶ Tolosa gasa: 675320

ALEGIA ▶ ERAKUSKETA



Kontxako trainerak. Hau da koadro guztietan handiena eta ederrena. Itsasoa lantzeko orduan oso nabarmen geratzen da orearen trataera: erliebean dagoena orearekin egin du, hainbat materiale nahastuz eta egitura ezberdinak horrela lortuz. Kostaldeko gaiak lantzen dituela agerian geratzen da. N. URBIZU

Erliebea koadroetan, paisaia indartzeko

Jose Luis Albisuk erliebea lantzen hainbat urte daramatza, ore bereziarekin Euskal Herriko hainbat txoko irudikatuz

NEREA URBIZU

Jose Luis Albisuren erakusketa ikusgai da Alegiako Jubilatuen tabernan. Benetan bereziak dira haren koadroak, aurreko erakusketan bezala, erliebea baita lantzen duena. Uki daitezkeen koadroak, alegia. Jose Luis Albisu tolosarrak 15 lan jarri ditu, bitxiak bai gaiengatik eta baita erabilitako materialengatik ere.

Albisu ez da margolaria berez, bere kasa ikasi du ikasi beharreko guztia, eta denbora librea duenean egiten du: «Eguzkeraren saliatzen naiz margotzen, asko laguntzen dit. Aisia da niretzat, eta asko lasaitzen nau, beste mundu batera bidaiatzea bezala da». 20 urte daramatza margotzen, eta horietatik 15 erliebea lantzen: nabari da margolanetan denbora daramala lanean, pintzeladen dotoretasunean, eta baita erliebea lortzeko teknikan ere.

Agerian geratzen dira egilearen preferentziak gaiekiko: paisaia lantzen du eta, batik bat, kostaldea: Donostiako paisaiak, Orrio... Askotan jotzen du txoko horietara. Erretratatuak

ere lantzen ditu, baina ez horrenbeste.

Inspirazioaren bila

Inspirazioa eraikitako zerbaitengan bilatzen du askotan: «Elizak, baserriak begiratzen ditut, eta berdinak egitea baino, zaharkitzea gustatzen zait, ez dut perflatazea gustuko. Badirudi gaizki egina egon daitekeela, baina efektu bat da, nahita bilatutako efektua. Hori da egin nahi dudana eta bilatzen dudana». Hau egiten badu ere, ez du irudia aurrean izan beharrik.

Lanak tamaina handikoak direnean batez ere, pisutsua delako, eta margoak lehortzea kostatu egiten delako, ez ditu nahi duenaren aurrean margotzen. Baina, aldiz, margotu be-

har duena egur zati txikietan denean eraman izaten du margotu beharrekoaren aurrera. Horrexegatik, Albisuk esaten duen moduan, «nire lanak, orokorrean, estudiokoak dira».

Hark dioen bezala, «ez dago ezer asmatzerik: sortuta dagoenarekin nahasketak egitea falta da bakarrik», eta hori egin du berak. Eskultura lanak ere behatzen ditu, ideiak hartzeko. Inspirazioa lortzeko, dena dela, lasaitasunaren garrantzia azpimarratzen du Albisuk.


Albisuren estiloa

Mihisea ez du beti erabiltzen, nekatu egin zelako beti olioak erabiltzeaz. Horregatik, ore botatzen hasi zen mihisean, egun batetik bestera, eta gutxi naka egurraren gainean margotzen hasi zen, baita kaxetan ere, «sakotasuna emateko», artistaren hitzetan.

Beirazko zuntza erabiltzen du gehienbat, eta zementuarekin nahastu du batzuetan, masa ezberdinak eratuz, eta hauekin behatuz. Beirazko zuntzaren abantailak bat bere sendotasuna da; hau da,



Leaburuko herria. Markoa amairik gabea da, ez du lerro zuzen batek moztzen. Erliebearekin badirudi elurra benetakoa dela, izoztuta dagoela. Agerian geratzen dira kolore apalak, zeruaren trataera bereziak gain. Zuhaitzen adarrek ere benetakoko dirudite. N. URBIZU



Getariako portua eta idi dema. Bi margolan hauetan argi aski geratzen da egurraren funtzioa: ezertarako balio ez duen egur zatian egiten ditu koadroak. Portua, kostaldeko irudia, eta behekoan nekazal munduarekin lotutakoa. N. URBIZU

ez da erraz hausten eta iraunkorragoa da.

Koloreak ez dira indar handikoak, baina itzalei garrantzia ematen die, horretarako biolenta kolorea asko erabiliz. Agerian geratzen da, Jose Luis Albisuren lanetan, eta baita Impresionismo garaia ere gustokoa duela: pintzeladak margo askorekin ematen ditu, masa asko erabiliz, eta irudiak ez dira zehatzak, bukaera zorrotzekin.

Markoei ez die garrantzia ematen, egurrak duen forma bera baita askotan horren papeira betetzen duena.


Hark aitortzen duen bezala, ez du inorekin ikasi, baina interes handia dauka, eta erakusketa asko ikustera joaten ohi da: batetik eta bestetik ikasten du, eta oso interesgarria dela

gaineratzen du. Gaur egungo margolariak ere gustoko ditu, Impresionismo garaiko Monet, Regoyos edota Van Goghez gain. Zehazki, Tapiés katalanaren lana du gustokoen artean.

Artearen egoera ez du ongi ikusten; izan ere, «denbora gehiago dedikatu behar zaio, norberaren hoberako eta baita besteentzat ere», dio Albisu margolariak, gizarteak ez duela laguntzen gaineratuz.

Ez du bere lehen erakusketa, inolaz ere, baina Donostialdean zabaldu nahi luke haren lana, han ere ezaguna egiteko. Beraz, denbora batez behintzat, ez da Tolosaldean bere lan ikusteko aukerarik izanen, Alegiako jubilatuen tabernakoa ez bada. Hilaren 21a arte egongo dira ikusgai, asteartetik igandera bitarte.

LIZARTZA ▶ KIROLAK



103 kilometro egin beharko dituzte guztira biharko proban parte hartzen duten txirrindulariek. HITZA

«Afizionatu mailako onenak» lehian ikusteko aukera

Bihar jokatu da Otsabio Kirol Elkarteak antolatutako XVIII. Insalus Saria; aurreko probetan bezala, 200 txirrindulari inguruk parte hartzea espero dute

IFIGO TERRADILLOS

Ohiko moduan, bihar izango da Otsabio Kirol Elkarteak antolatzen duen Lizartzako XVIII. afizionatu mailako Insalus Saria txirrindulari proba. 15:30ean abiatuko dira txirrindulariak Lizartzatik eta eskualdeko nahiz Goierriko hainbat herri igaro ondoren, eta 103 kilometro burutu eta gero, Lizartzara bueltatuko dira, bertan izango baitu helmuga probak.

Lehendakari Txapelketarako puntuagarria den proba hau urtetik urtera ospe handiagoa ari da hartzen, eta parte-hartzaile kopurua da horren adibide; izan ere, 200 inguru izaten dituzte, eta aurtengoa ere hala izatea espero dutela azaldu dute antolatzaileek. Gainera, txirrindularien egutegiko lehendabiziko probetakoa izaki, duen gogortasunagatik «afizionatu mailako talde eta txirrindulari onenak» hartzen dute parte. «Proba honetan irabazle suertatu direnak profesionaletara igotzea lortu dute, eta horrek ere ospe handia eman dio», azaldu dute antola-



Otsabio Kirol Elkarteako kideak XVIII. Insalus Saria txirrindulari probaren aurkezpenean. HITZA

DATUAK ▶

Ibilbidea. Lizartza, Tolosa, Alegia, Ikaztegieta, Legorreta, Itsasondo, Ordizia, Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta, Alegia, Altzo, Lizartza, Tolosa (Amaroz), Alegia, Altzo, Leaburu, Tolosa (hiria), Alegia, Altzo eta Lizartza.
Luzera. 103 kilometro.
Mendiko sariak. Altzoko lehenengo bi igoeretan eta Leaburuko igoeran.

tzaileek; Joaquín Rodríguez, Samuel Sánchez, Jonathan González, Luis León Sánchez, José Joaquín Rojas edo Mikel Astarloza dira, besteak beste, proba irabazi eta profesional maila igo diren txirrindulariak.

18 urteko historia

Zailtasun ugari izan badituzte ere, Otsabio elkarteak 18 urte daramatza, urterik urte, hutsik egin gabe Lizartzako Txirrindulari Proba antolatzen. Egun afizionatuen mailako proba

bada ere, jubenil mailako txirrindulari proba bezala jaitzen. Hain zuzen ere, lehenengo 10 urteetan jubenilei zuzendurikoa izan zen. 10. urtemuga ospatzeko afizionatu mailako Gipuzkoako Txapelketa antolatuzten, eta orduz geroztik maila horretako txirrindulari proba antolatzea erabaki zuten antolatzaileek.

Otsabio Kirol elkarteak esker bereziak luzatu nahi dizkio 18 urte hauetan babesle lanean aritu diren etxe edo lantegi ezberdinei.

BERASTEGI ▶

Gaur eta bihar Gazte Festak antolatu ditu Urepelek

Afaria, musika, Mus Txapelketa, sagardo dastaketa eta bertso saioa izango dira



Dj Bull ariko da aurtan ere. HITZA

I. TERRADILLOS

Urtero garai honetan egin ohi duten bezala, Berastegin Gazte Festak izango dituzte gaur eta bihar Urepelelkar- teak antolatuturik.

Afari oparo batekin emango diete festei hasiera, eta ondoren, DJ Bull-en musika emanaldia izango da herriko frontoian; goizalderarte luzatuko da festa, beraz.

Bihar, 16:00etan, pasa den asteburuan hasiera eman zioten mus txapelketaren finala jokatu da. Eta ondoren, 18:30ean, sagardo dastaketa izango da pilotalekuan. 19:30ean, bertso saioa izango da pilotalekuan; Ifigo Gorostarzu izango da aurkezlea, eta Jon Maia, Jesus Mari Irazu, Iker Zubeldia eta Anjel Mari Peñagarikano ariko dira bertsoetan. Gazte Festeak agurtzeko, 00:30ean hasita, Laiotz taldearen musika emanaldia izango da herriko plazan.

urteurrena ▶

II. urtemuga Juan Joxe Amenabarro Iturrioz

Ohartu gara
ez bada amets galduetara erortzeko;
eta oroitzapenez bete dela mundua
ez baitira gogora etortzen diren
ilusio faltsuak besterik...

Eta ez genuke hemendik joan nahi, atona,
argirik ikusten ez den eremura
bakarrnik baikade zu ez zaudenetik.

Esti, Mari, Lander eta Joxe



oharra ▶ marxoaren 19an haren omenezko meza
dago Villabonako Jesusen Bihotza parrokian, 12:30ean

VILLABONA, 2006ko martxoaren 18a

hilberria ▶



Jose Maria Tolosa Iturtzaeta (Axuero)

Izan zarenagatik
eta erakutsi diguzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko

LORETXUKOEK

ORIO, 2006ko martxoaren 17a



ESKERTZA ▶

Juanan Gartziaarena Arregi
andere hil berriaren senideen
partetik, eskerrak samin agurra
bidali zenuten eta hileta
elizkizunetara etorri zineten
guztio.

Berastegi, 2006ko martxoaren 17a

LEITZA ▶ AISIA

Ludoteka irekiko dute heldu den astean, maiatza arte, 12 urte arteko umeentzat

Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak eta Leitzako Udalak antolatu dute; bertan izena emateko epea zabalik dago datorren astelehena arte, hilaren 20a

JAIONE ASTIBIA

12 urte arteko haur eta umeentzat jolastokia irekiko dute Leitzako udaletxeko lehen solairuko aretoan. Ludoteka antolatu dute, eta hilaren 27an irekitzekotan direlarik, orain bertan parte hartu nahi duten umeek matrikula egiteko tenorea dute: hilaren 20a arte, heldu den astelehena bitartean, beraz, Euskara Zerbitzuan bertan egin dezakete.

Izena emateko garaian, «matrikulatu nahi den haurren izen-abizenak, adina, ikasketa kurtsua eta berari buruz eman beharreko informazioa» helarazi behar omen dira, matrikulatzen den haur bakoitzeko, eta

10 euro ordaindu behar dira. Halaxe adierazi dute Euskara Zerbitzutik. Honen harira, Erleta eskolako ikasle guztiei oharra helarazi diete, eta «hortxe bertan ageri den eskaera, hots izen-emate fitxa bete eta mozuta gure bulegora bideratzea nahikoa da matrikula egiteko», zehaztu dutenez.

Haurrek jostatzeko leku berezirik izan ez eta, datorren 27tik aurrera, «horretarako aproposa» den gunea irekiko dute. Ikasturtea aurrera doalarik, oraingoan «apirilean eta maiatzean egongo da zabalik» zehaztu dute, heldu den ikasturterako urritik aurrera irekitzeko egitasmoa dutela iragarri bitartean.



Jostatuz ere, osatuz. J. ASTIBIA

Jostatzeko txoko hori antolatzeko Dindaia fundazioaren laguntza izan omen dute, besteak beste gaztetxoan aisialdian aditu den elkartearen dena. Ho-

rrera, antolatu duten ludoteka horretan «jolaseko gune aproposa» izateaz gain, «jostaketaren bidez haurren heziketari eta formakuntzari bultzada emateko gunea ere bada». Zentzu horretan, «gelako arauak errespetatzea, txukuntasuna... alegia, umearen garapenerako arlo guztiak lantzen dira, aukeratutako jolas eta jostailuen egokitzapenaren bidez», argitu dute: «Jakintza maila, psikomotritzitatea, arlo afektibo eta soziala, irudimena eta sormena».

Ludoteka 3 urteko haurretatik hasita, 12 urteko gaztetxoak bitartekoentzat bideratuta dago. Adin tarte zabala izanik, bi talde egingen dituzte, «bost

LUDETEKA ▶ ORDUTEGIAK

HAUR HEZKUNTZAKOAK

Adina. 3 urtetik 5era bitartean.

Egunak. Asteartetan eta ostiraletan.

Ordutegia. 17:00etatik 19:00etara.

LEHEN HEZKUNTZAKOAK

Adina. 6 urtetik 12ra.

Egunak. Astelehenean eta ostegunetan.

Ordutegia. 17:00etatik 19:00etara.

urte artekoak alde batetik eta 6tik 12 artekoak bestetik. Bakoitzari dagozkion mailako arreta eskaintzeko helburuz. Talde bakoitzak bere ordutegia izanen du (ondoko koadroan zehaztasunak), aditza eman dutenez.

Bestalde, matrikula ordaintzeak, «ludotekara joateko konpromisoa» dakarrela nabarmendu nahi izan dute. Bete ere, eskolaz kanpoko beste ekintzak kontutan hartuz lagutasunez jokatu dute.

Zerbitzu honetan ariko den langilea, ludotekaria, alegia, laster aukeratuko dute.

LEITZA ▶ FUTBOLA

Helduak Lekunberrira doaz eta gazteak Agoitzera, lider berriarekin jokatzera

Aurrerako bi taldeek bihar arratsaldean jokatu dituzte partidua

J. ASTIBIA

Bihar dute futbol jardunaldia Aurrerako bi futbol taldeek. Gainera biak hala biak kanpoin ari behar dira.

Lurraldekakoan, helduek Larraun aldera joko dute. Lekunberriko Bete Kozkorren aurka jokatu dute; 16:30ean hasiko da partidua.

Bi jardunalditan, ondorioz ia 3 astetan jokatu gabe egon dira leitzarrek, Inauteriak eta atsedean jardunaldia tarteko. Orain, Liga bukatzeko bost par-

tidu besterik ez zaizkie gelditzen eta lider dagoelarik, erantzunkizun handikoak. Izan ere, tartean Baztanen (puntu baka-rrera dago) edota San Inazio- ren (bost puntura) aurkakoak heldu zaizkio, guztiak igoerako ligaxkarako sailkapen-jokoan murgilduta daudenak. Aurrerakin batean eta puntu berdinekin dagoen Gazte Berriak-ekin batera. Beraz, ordurako puntuak gehitzea ezinbestekoa dute leitzarrek, eta biharko partidua horretarako bali- dezakete.

Bestalde, gazteen mailan, lider jarri berriaren aurka arit- tzea egokitu zaio berriz ere Aurrerari. Aurrekoan, Union Mu- tilvera izan zuen arerio, orduan aurreneko zihoana, eta hain justu leitzarrek 3 eta 2 irabazi egin zien; garaipen horrek Agoitz lider jartzea ondoriozta- tu zuen. Mutiloakoen kaltetan. Oraingoan talde hau izanen dute arerio leitzarrek egita- rauaren ariora, bi aste jarraie- tan, unean uneko sailkapen- buruaren aurka jokatzera era- ginez: Agoitzen, 16:30ean.

LEITZA ▶ KULTURA

'Hazparneko anderea' herriz herri abiatu dute

Igandeko Lekunberriko saioan jasotzen dutena Saharako herrira bideratuko dute

J. ASTIBIA

Leitzako Txinparta antzerki taldeak, *Hazparneko anderea* antzerki obraren bi emanaldi berri iragarri ditu asteburako. Bata bihar bererako, Goizue- tan, udaletxeko aretoan eskai- niko dute, 19:00etan; igande- an, berriz, bestea, Lekunberri- ko kiroldegian, 17:00etatik aurrera.

Lan honen prestaketan Eus- kara Zerbitzuak laguntza eman zenez, mankomunitate-

ko beste herri batzuetara ere hedatzea ontzat jo zuten eta, hala, eskualdeko bi herri ho- rietara joan dira.

Hazparneko anderea antze- zlanaren estreineko saioa hilbeltzean egin zuten he- rrian, hilabetetako prestaketa- ren ondoren; gainera, bi fun- tzio eman behar izan zituzten orduan, arrakastaren arra- kastaz. Obran herriko 17 lagu- nek egiten dute lan oholza gainean. Orain berriz ere ikus- teko aukera dago.

iragarki laburrak ▶

LANA

Etxeko lanetarako. Alegian, neska bat behar da etxeko lanak egiteko, 10:30etik 14:30era. Interesatuak deitu 943 653 034ra.

Tabernaria. Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan

4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. Interesatuak deitu 635 74 52 91ra.

SALGAI

Furgoneta. Furgoneta salgai W-Kalifornia: 5 TDI, 2002koa. Oso

egoera onean. Interesatuak deitu 626 73 73 77ra.

Pisua. Leitzan, 100 m²-ko pisua salgai, igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. 699 46 13 65ra.

ALOKERAN

Garajea. Garajea itxia alokatzen da Iruran. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646 48 76 01.

Pisua. Alokera hartzeko, pisu edo apartamentu bila nabil, leihoak iparralderantz dituena. Deitu telefono zenbaki honetara: 678 25 05 66.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Tolosako Inauteriak igaro dira. Zer gustatu zaizu gien? Zer bota duzu faltan? Zer gehituko zenuke? Zer kenduko?

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Asteasu. Abesbatzakoek kantujira egingo dute hilaren 25ean, 12:00etan hasita. Ondoren, bazkaltzeko elkartuko dira. Izen-ematea, 687 27 31 63an. Gaur da azken eguna.

Baliarrain. Txekor-jateari buruzko bilera. 21:00etan, udaletxean.

Leaburu. Hilaren 26an bazkaria egingo dute Larrasoroko herritarrekin Asteasuko Sarasola sagardotegian. Izen-ematea, udal bulegoetan (943 67 59 31).

Tolosa. Alpino Uzturre elkarteak Ermua-Landa mendi irteera antolatu du etzirako. Izen-ematea, elkartean (Gudari, 5. 943 65 27 89).

Tolosa. Santa Maria kaperak eta Udalak omenaldia egingo diote Pepe Arzelus organistari etzi. Bazkarirako txartelak salgai Zabala estankotan, Lardiesen eta Santa Marian.

Tolosa. Gerontologikoaren aldeko plataformak zentro berri bat eskatzeko sinadurak biltzeko mahaiak jarriko ditu Trianguloan, Berdura plazan eta Iparragirren, bihar, 11:30etik 13:00etara.

Tolosa. EHNAREN tramitazioa. Bihar, 11:00etatik 13:30era, udaletxean.

Tolosa. Udaberri dantza taldeak erromeria egingo du apirilaren 1ean. Jaiari amaiera emateko afaria antolatu dute, Abastosen. Kimetz arropa dendan eta Garikano zapata dendan daude salgai txartelak.

ERAKUSKETAK

Alegia. Jose Luis Albizuren koadroak. Hilaren 21a arte, Jubilatuen tabernan.

Leitza. Manuel Lasarte: *bitzita eta sorkuntza*. Hilaren 26ra bitartean, udaletxeko batzar aretoan.

Tolosa. Dorleta Ortiz de Elgearen pinturak. Apirilaren 1a arte, Aranburu Jauregian.

Tolosa. *Poesia mobil*. Enrique Zalduaren pintura erakusketak. Apirilaren 22ra arte, Aranburu Jauregian.

HITZALDIAK

Tolosa. *El sueño de Africa*. Javier Reverte bidaiari eta kazetari madrildarraren eskutik. 20:00etan, Kultur Etxean. Zumardi-Amalur jardunaldietan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

IRRATIA

Txolarre (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa:* HITZAREN errepaosa, eguraldia Joxe Landarekin, agenda, albisteak, elkarrizketak, disko eskaniak...
 21:00-22:00. *Zaharrak berri,* Hala Bedi irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
 22:00-23:00. *Arkako show* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
 agurren tarte

Eresoinkaren ahotsak

TOLOSA ▶ Jose Ramon Artetari eta haren familiari «omenaldi goxoa» eskaini diete Eresoinkako kantariak



Josi Etxabek egindako karikatura jaso zuen opari Jose Ramon Artetak. Ainhoa alabarekin ageri da argazkian. HITZA



Eresoinka abesbatzako hainbat kide, Jose Ramon Artetarekin, igandean, festa giroan. HITZA

ERREDAKZIOA

Eresoinka abesbatzako 80 bat kantarik omendu zuten igandean Jose Ramon Arteta kantu iraskaslea. Duela 30 urte sortu zuen taldea Artetak, eta hainbat belaunalditako abeslariak agertu zioten beren esker ona. Frontonen egindako bazkarian. Haien artean ziren ere Ainhoa eta Gerardo seme-alabak, Eresoinkako kide izandakoak biak.

«Emozioz beteriko eguna» izan zen igandekoa Eresoinkakoentzat. Pasadizo asko zuten elkarri kontatzeko, eta «pozik» ziren elkarteko aukera izan zutelako.

Roberto Ruiz sukaldariak prestatutako «bazkari goxoaren» ondoren, Eresoinkako argazkien proiektzioa ikusi ahal izan zuten abeslariak. «Ezuste-ko handia izan zen gehienontzat, eta malkoei utsi ezinik egon ginene». Jose Ramon Artetak Josi Etxabek egindako karikatura jaso zuen opari, abeslariaren barre eta txalo artean. Eta Esther Ibarrolaburu emazteari «lore sorta ederra» eman zion Jose Luengok. «Familia guztiak hunkiturik jaso zuen omenaldia, eta guretzako ere oso une berezia izan zen». Bat-batean kantatzen hasi ziren guztiak, urte batzuk atzera eginaz, eta oraindik kanturako zaletasuna eta abilezia ez dutela galdu garbi utzi.

Hala, 750. urteurrenean izango den kontzertu berezian parte hartuko dute Eresoinkakoek. Ainhoa Arteta ere ariko da. «Oraindik familia handia izaten jarraitzen dugu...».

Sutagar
 JUNIAK HILAKEN ENBARRAZ
KALEAN APIRILAREN 5 EAN
 Erreserbatu orain txartelarekin eta lortu taldearen single-a doan.
 Itzakinek arrabtu arte

BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

ekar
 www.ekar.com